

Josep Font

Edertasuna eta egonezina

Erakusketa

2023.06.30 — 2024.01.07

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

«Edertasunaren atzean ezinegona dago beti» premia konstante bat da Josep Fonten ibilbidean zehar. Edertasunak, bere distira osoan, kezka sortzen du, eta baita ezinegona ere, baina, beharbada, hura etengabe erdiesteko behar den energia baliteke edertasunak berak sorraraztea.

XX. mendetik XXI. mendera bitarteko trantsizioan, Font Espainiako sortzailerik pertsonal eta preziatuenen artean aintzatetsia izan da aho batez, nazioarteko proiektio nabarmenarekin.

2014an, Modaren Diseinu Nazionala jaso zuen, Kultura Ministerioak emana, ordura arte bai Espainiaren barruan bai Espainiatik kanpo jasoak zituen sari ugarietako bat zitzaiena.

Josep Fontek Arkitektura ikasi zuen Universitat Politècnica de Catalunyan eta Moda Diseinuan graduatu zen Escola de Disseny i Moda Felicidad Duce eskolan, Bartzelonan.

Izaeraz barnerakoi eta gaur egungo modaren eszenatoki handietatik urrun, bere buruaz irudi iritsezina proiektatu du, haren ezohiko ibilbideak areagotu egin duena.

Bere karreraren gailurrean zegoenean, Pariseko Goi Mailako Joskintzaren Astean behin eta berriro parte hartuz, bere marka propioa galdu zuen. Delpozorekin —nazioartean modu harrigarrian berdiseinatu eta berrindartu zuen markarekin— zazpi urtez arrakasta handia izan ondoren, elkarrizketarik eman gabe bakartu egin zen, eta gaur egun erabateko anonimotasunean bizi da. Azken erabaki horrekin, haren figura mitiko bihurtu da.

Josep Font. Edertasuna eta ezinegona erakusketa, Cristóbal Balenciaga Museoak antolatua eta Josep Casamartina i Parassols-ek —Antonio de Montpalau Fundazioaren zuzendariak— komisariatua, sortzailearekin lankidetzan estuan, diseinatzaile katalanari eskainitako lehen erakusketa antologikoa da. Eta Cristóbal Balenciaga Museoaren testuinguruan, gainera, erakusketak, diseinatzailearen eta Getariako Maisuaren artean sor daitezkeen konkomitantzia ugariak azpimarratu nahi ditu.

FW 2015, *Vibrant paintings of Rhys Lee, and Andrey Remnev*
contemporary reimaginings of Pre-Raphaelite works, New York
Bilduma pribatua



Diskurtso estetiko baten bidez, Josep Fontek XXI. mendeko lehen bi hamarkadetan ekoitzitako lana du ardatz erakusketak, eta goi mailako joskintzarako eta prêt-à-porterrera egin zituen sortze lanik garrantzitsuenetako batzuk biltzen ditu. Josep Fonten etapan Bartzelonan, Tokion, Madrilen eta Parisen aurkeztutako bildumak; eta Delpozoren etapan Madrilen, New Yorken, Parisen eta Londresen aurkeztutakoak.

Erakusketan guztira 54 janzkera ikus daitezke: berokiak, kaleko konjuntxoak, koktel jantziak, gaueko soinekoak eta eztei jantziak; haiek guztiak Antoni de Montpalau fundaziotik – diseinatzaile katalanaren jantzien funts nagusia du – eta Espainiako eta Ipar Amerikako hainbat bilduma partikularretatik ekarriak.

Multzoak, halaber, bi marken osagarri batzuk biltzen ditu, hala nola oinetakoak, lurrinak eta burukoak. Ibilbideak Joseph Hunwick, Javier Bosca eta Ernesto Artilloren argazki enblematikoak biltzen ditu, baita Londresko Victoria & Albert Museoak egin zion elkarriketa ere.

Josep Casamartina i Parassolsek Ismael Núñez Muñozen laguntzarekin zuzentzen duen Montpalau Fundazioak 17.500 janzki baino gehiagoko funtsa du, eta Estatuko janzkera bildumarik garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Josep Fonten obra —batez ere 1987 eta 2011 artekoa— dokumentatzen eta biltzen jardun du hainbat eta hainbat urtetan, eta gaur egun 200 erreferentzia baino gehiago biltzea lortu du, diseinatzaile katalanaren obrari buruz dagoen funtsik osoena eratu arte. «Fontekin eta beste kolaboratzaile askorekin elkarlan etengabe eginiko lan honek, Cristóbal Balenciaga Museoko erakusketa-proiektu honen ernaimuina ekarri du», Casamartinaren esanetan.

Fontentzat, edertasunak, bere distira osoan, kezka sortzen du, eta baita ezinegon ere, baina, beharbada, hura etengabe erdiesteko behar den energia baliteke edertasunak berak sorraraztea. Eraikuntza arkitektonikoa, bolumenen joko eta ehunen apaindura dira Fonten obraren ezaugarri nagusiak. Ahaztu gabe ideal femenino oso pertsonal baten bilaketa etengabea, behin berriro eboluzioan dagoena, zarata eta probokazio orotatik urrun, dotorea, fina eta etereoa.

Diseinatzailearentzat erakusketa hau garrantzitsua da bere sortze-lanak hobeto preziatzeko: «Jende askok ikusi zituen Delpozoren janzkiak desfileetan edo celebritien artean. Interesgarriena da ikustea nola dauden eginak, zein den koloreen eta ehunen konposizioa, nola uztartzen diren, nola edertzen gaituzten... Hori guztia hurbiletik baloratu behar da», dio Fontek.

Modari eskaini zion hogeita hamar urtetik gorako ekoizpen oparoan, batez ere hiru garai bereiz daitezke, bere obra igarotzen deneko hiru hamarkadekin ia paraleloan doazenak.

Hastapen fasetik sendotze fasera

Josep Fontek bere marka propioa Luz Díazeekin batera sendotu zuen, batez ere 1987tik aurrera; nolanahi ere, baziren urte batzuk modaren munduan aintzatespen zabala zutela. Biak Pedro Rodríguezen ikasleak izan ziren, Bartzelonako Escola Superior de Disseny i Moda Felicidad Duce-n. Elkarrekin, kolore soileko estetika zorrotz eta aratza sortuko dute. Haien inspirazioak eguneroko janzkera herrikoia zuen sorburu (material naturalak, zeta, artilea eta kotoia erabiliz), hala nola patrogintza zehatz eta zorrotza. Hala ere, 1995ean, Fontek bere bidea bakarka jarraitu zuen, eta, hamarkada honen amaieran mundu magiko eta hipersentikor baterantz eboluzionatu zuen: kolorazio zabalak, luxuzko ehun finak, brodatu ikusgarri eta ausartak... nazioartean arrakasta izan arte. Prozesu hau puntu gorenera iritsi zen Parisen aurkeztu zituen hiru *prêt-à-porter* bildumekin eta goi mailako jostuntzako lau bildumekin —2008tik 2009ra bitartean—, Frantziako hiriburuan erabateko arrakasta izan baitzuten. Kolore apalek paleta ikusgarri baten eklosioari bide emango diote: parpailak, brodatu ausartak eta ederrak, belusak, devoré-ak, cloqué-ak eta jostuntzaren distira berreskuratzen duten ehun landuak.

Delpozoren bultzada berria

2011n beraren marka galdu ondoren eta beste enpresa batzuetarako, urtebetez, modu anonimoan desinatzen aritu eta gero, Josep Fontek Jesús del Pozo diseinatzaile madrildar zenduraren firma berregokitzeko eta berriro abian jartzeko enkargua jaso zuen. Delpozo izenarekin eta egitura eta tailer eguneratuak lagun, Fontek markaren kontzeptu berria eta Madrileko, Miami, Moskuko eta Dubaiko dendak zuzentzen hasi zen. Bilduma berri hauetan, goi mailako jostuntzan hasi zuena bilakarazi zuen, *prêt-à-couture* lerro bikain, zorrotz, berritzaile eta bikaina sortuz, berezkoa duen bezala. Oso etapa aratza da, bolumen sendoak eta ausartak agertzen dira, baina, aldi berean, pisurik gabeak, non Cristóbal Balenciagaren eragina hauteman daitekeen, bai eta Emilie Flöge-rena ere (Vienako jostun fina, Gustav Klimt-en lagunartekoa), Andrey Remnev margolari errusiarraren mundu magiko eta hipersentikorra eta Josef Albers alemaniarren proposamen kromatikoak hautemateaz gain.

Heldutasuna eta nazioarteko aintzatespena

Josep Fontek Delpozoren etapan erdietsiko du bere ibilbidearen zenita. 2012 eta 2018 artean, 19 bilduma sortu zituen, eta garai oparo horretan jarriko da agerian batik-bat Cristóbal Balenciagaren eragina. Delpozoren eskutik diseinatzaile katalanak heldutasuna eta mundu mailako aintzatespenik handiena lortu zituen, Madrilen, New Yorken, Parisen eta Londresen aurkeztu zituen bildumak lagun, eta marka kokatu zuen alfonbra gorriko eta garaiko emakume ospetsuen marka faboritoen artean, hala nola Keira Knightley, Cate Blanchett, Julianne Moore, Elle Fanning, Rihanna o Zendaya, mugimendu bat sorraraziz eta modaren munduan mugarri bat ezarriz.

SS 2015, *Josef Albers*, New York
AdM 15493. Fundació Antoni de Montpalau



SS 2017, *Soo Sunny Park*, New York
Bilduma pribatua



Cristóbal Balenciaga Museoak erakusketa-ildo berri bat inauguratu du erakusketa honekin, Cristóbal Balenciagak egungo modan duen eragina aztertzeko, mundu mailako sortzaile garaikideen obratik abiatuta.

Josep Font. Edertasuna eta Ezinegona erakusketa da lehen proposamena eta Cristóbal Balenciagaren legatuak izan duen eraginaren testigantza ematen du. "Alde horretatik, Museoaren egitekoa da Balenciagaren obraren inguruan elkarriketak sortzea, bildumaren inguruan ikerlanak eta sortze-lan berriak bultzatzeaz gain; izan ere, horrela, bere ondarearen garrantzia nabarmendu egingo da, ez bakarrik Balenciagaren une historikoan, baizik eta, bereziki, orain eta etorkizunean", Miren Vives Cristóbal Balenciaga Museoko zuzendariaren esanetan.

Erakusketako komisarioak dioten bezala, "Josep Fontek Cristóbal Balenciagaren obran jartzen duen begirada ez da inoiz mimetikoa izango; aitzitik, emakumeen anatomiaren bolumenari buruz modu autonomo eta independentean egindako azterketatik abiatuta, oso interpretazio pertsonala egingo du, sentsualitate sublimatu eta isil bat erdietsiz, Balenciagak ere hura ulertzen zuen bezala".

«Aldi berean, perfekzio tekniko handia lortzen du, eta ehunen tratamendu sinple eta aldi berean sendoan, eraiketa arkitektonikoan eta brodatu bikainen erabileran ere Getariako maisuaren legatura hurbiltzen da. Beharbada, Espainiako beste ezein diseinatzaile garaikidek ez bezala, Font bat dator Balenciagaren kontzeptu ospetsuarekin: "Jostunak arkitektoa izan behar du formarako, margolaria kolorerako, musikaria harmoniarako eta filosofoa neurrirako"».

FW 2013, *Arquitectura Orgánica*, New York
Bilduma pribatua

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Alex Iturralde



SS 2009, *Mirando al mar*, Haute Couture, Paris
AdM 15772. Fundació Antoni de Montpalau



© Javier Biosca



Josep Font

Josep Font Calvet Santa Perpètua de la Mogoda jaio zen, Bartzelonako probintzian, 1965ean. Sabadellen eta La Garrigan ikasketak egin ondoren, arkitektura ikasi zuen Universitat Politècnica de Catalunya, baina joskintzaren eta modaren munduan ere inplikatu zen, eta Moda Diseinua egin zuen Bartzelonako Escola Superior de Disseny i Moda Felicidad Duce-n, 1983an diplomatuz Pedro Rodríguez irakaslearen gidaritzapean. Arkitektura ikasi izanak modu nabarmenean lagundu zion forma eta egitura menderatzen, zeinak beti egon baitziren agerian emakumeentzat diseinatzen zituen jantzieta. Modarako duen talentua berehala izango da aintzatetsia. 21 urte besterik ez zituela, ikasten ari den bitartean, «Air France Mode Prix» saria irabazi zuen eta erakusketa bat egin zuen Pariseko Musée des Arts Décoratifs delakoan. Moda ere ikasi zuen Luz Díaz diseinatzailearekin elkartuta, Mapamundi marka sortu zuten bien artean, eta kotoizko popelinaz egindako alkandora zuriak ekoizten hasi ziren, arrakasta handia lortuz. Hori dela eta, Bartzelonako Gaudí Pasarelan aurkeztu zituzten bildumak abiarazi zituzten; 1987tik aurrera, prentsa espezializatua arreta jartzen hasi zen haiengan eta haien estilo sinple eta garbian (lauregeiko hamarkadan nagusi ziren joera nabarmenekin kontrajarrita).

1989an, Prix Fil d'Argent saria eskuratu zuten, eta Monakoko Prix Fil d'Or-erako izendatuta geratu

ziren; Gaudí Pasarelan parte hartu zuten berriro, eta, lehen aldiz, Cibeles Pasarela, Madrilén, eta baita Milango Salone de la Moda-n ere. 1991n Gabriela enpresa sortu zuten eta beren lehen saltokia zabaldu zuten Bartzelona, passeig de Gràcia-n, eta 1992an Bilbon. 1993an sozietatea handitu eta Düsseldorf-eko Fashion Fair Igedo-n parte hartu zuten, eta horrela, beren marka Alemaniako merkatuan sartu zuten. 1995ean inbertitzaileetako batek bere gain hartu zuen enpresa osoa, eta une horretatik aurrera Josep Font bildumak bakarka aurkezten hasi zen. 90eko hamarkadaren bigarren erdian, Font-en estetika, ordura arte hain apainduta gutxikoa izan zena, pixkanaka sentsualitatea eta fantasia handiagoa bereganatzen hasi zen, hurrengo hamarkadan zehar une gorenera iritsiko zen prozesu batean. 1997an, kalitate handiko nazioarteko modan espezializatuta zegoen Itokin konpainia japoniarrak akordio bat egin zuen Josen Font-en sortze-lanak Asiako hego-ekialdeko merkatuan sartzeko eta banatzeko, eta denda-kate bat ireki zen Japonian Josep Font-en izenarekin eta hark berak diseinatutako altzariekin. Urte berean Tokiko Japan Fashion Week-en hartu zuen parte. 1998an Òscar Tusquets arkitektoarekin kolaboratu zuen eta elkarrekin «Clipper Sofa» diseinatu zuten Enrico Astori-ren Driade marka italiarrarentzat.

Milurtekoaren hasierarekin batera, diseinatzaile katalanak denda bat ireki zuen Madrilén, eta 2000-2001 udazken-neguko denboraldiko bilduma onenaren L'Oréal saria jaso zuen, beste sari garrantzitsu batzuen gain. 2001ean, Parisko Galeries Lafayette-k Font-en bildumak sartu zituen «Le Laboratoire des Créateurs» espazioan. Hurrengo urtean, Bartzelonako denda Carrer de Provença-ra aldatu eta Parisen bildumak aurkezten hasi zen; ere berean, Bartzelonako Circuit azokan/a retoan bere bigarren ildoak («2 de Josep Font») aurkeztu zuen.

2004an, Font-ek denda ireki zuen Parisen, rue de la Sourdière-n, rue Saint Honoré-tik hurbil, eta Swarovski-ren «Runway Rocks» erakusketan parte hartzera gonbidatu zuten. Erakusketa Londresko Victoria and Albert Museoa izan zen. 2005ean Parisen antolatutako ongintzazko beste hainbat diseinatzailearekin batera (Yohji Yamamoto, John Galiano, etab.). 2006an, Vassari bitxi dendako katalogoaren zuzendaritza artistikoaz arduratu zen. Eta 2006tik 2007ra bitartean Font-ek hiru bilduma aurkeztu zituen «Paris Fashion Week» delakoan, aho bateko arrakasta lortuz. Horri esker, 2008 eta 2009

artean, «Fédération Française de la Couture»k beste lau bilduma (kasu honetan goi mailako jostintzakoak) Parisen aurkezteko gonbitea egin zion, berriro ere erabateko arrakasta lortuz.

2010ean, Font-ek goi mailako jostintzako zenbait sortze lan erakutsi zituen Bartzelonan, La Pedrera-n, Mariano Fortuny eta Madrozoren omenez egindako erakusketaren harira. Bere karrerarik unerik gorenean zegoenean, berak sortutako enpresarekin gatazka bat piztu zen eta, horren ondorioz, enpresaren izena galdu zuen, beste diseinatzaile batzuekin (Romeo Gigli, Jill Sander, Antonio Miró, Christian Lacroix, etab.) gertatu bezala. Bi urtez beste marka batzuentzat diseinatzeko aritu ondoren, Perfumes y Diseño enpresak Jesús del Pozo-ren marka berriro abian jartzea proposatu zion, 2011n zendu baitzen. Font-ek marka goitik behera birdiseinatu zuen eta handik aurrera izen hau hartuko du: Delpozo. Sormen zuzendaria izateaz gain, markaren posizionamendu berriaz, irudiaren estrategiaz eta produktuen banaketaz ere arduratuko da bere lan-taldearekin batera. Nortasun korporatibo berria oso-osorik diseinatu eta definitu zuen, baita Madril, Miami, Londres, Dubai eta Moskuko boutikeen diseinua ere. Artisan-tekniak eta goi mailako jostintzaren savoir faire delakoa teknika berritzaileekin konbinatuz, Delpozo marka ready-to-couture delakoan kokatu zuen, ready-to-wear moderno eta bikain bat sortzeko. Font-ek markaren balio berriak proposatu eta honako alderdi hauek azpimarratu zituen: ikerketa sortzailea, artisautzaren berrinterpretazioa, brodatu moderno eta fresko guztiz berritzaileen erabilera... Halaber, xehetasun guztietan kalitate bikainarekiko konpromisoa ere azpimarratu zuen, azken batean alde handia definitzen duena horixe baita. Konpainiaren proiektzioak marka bihurtu zuen alfonbra gorriaren ikur, bai estatu mailan bai nazioarte mailan, eta horren ondorioz, jende ospetsu askoren eta beste pertsona itzaltsu batzuen gustuko bihurtu zen. Moda Operandi eta Net-a-Porter izango lirateke markan sinesten lehenak. Delpozorako lan eginez, Fontek 19 bilduma aurkeztu zituen Madrilen, New Yorken, Parisen eta Londresen, eta aurreko etapan diseinatzaile katalanak aintzatespen handia lortu bazuen, Delpozorekin aise gaingituko zuen aurretik lortutako arrakasta eztaba daezina.

2014an, Moda Diseinuaren Sari Nazionala jaso zuen Espainiako Estatuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskutik. 2018ko udazkenean, ordea, Font Delpozo konpainiatik erretiratu zen eta modaren mundua utzi zuen.

Josep Casamartina

Josep Casamartina i Parassols (Sabadell, 1956) historialaria eta arte, moda eta arkitektura kritikaria da, Antonio de Montapalau fundazioko zuzendari eta presidenteordea izateaz gain —fundazio hau 2004an sortu zen moda historikoa aztertzeko eta sustatzeko—.

Komisario independente gisa, Casamartinak arteari, modari, diseinuari eta argazkigintzari buruzko erakusketa ugari komisariatatu ditu. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: *Joana Biarnés, Madrid / Moda a pie de calle*, Sala Canal de Isabel II, Madril, 2023; *Santa Eulalia 180 años de moda*, Palau Robert, Bartzelona, 2022-2023; *Ismael Smith, la belleza y los monstruos*, Museu Nacional d'Art de Catalunya, Bartzelona, 2017; *Pedro Rovira, de la alta costura al prêt-à-porter*, Museo del Traje, Madril, 2017; *Catalunya és Moda*, Espai Catalunya Europa, Bruselas, 2014; *Balenciaga eta goi mailako jostintza Bartzelonan*, Cristóbal Balenciaga Museoa, Getaria, 2013-2014; *Togores, klasizismoa eta berrikuntza*, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madril, 1997; *Serge Charchoune, entre el Dadá y la abstracción*, 2004, eta *Amazonas del Arte Nuevo*, 2008, MAPFRE Fundazioa; *Ángeles Santos, un mundo insólito en Valladolid*, Patio Herreriano Museoa, 2003, beste askoren artean.

Josep Font. Edertasuna eta ezinegon

Laguntzaile nagusia



Laguntzaileak



Laguntzaile estrategikoak



Cristóbal Balenciaga Museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —4.500 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



INFORMAZIOA

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@cristobalbalenciagamuseoa.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com

B



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



OPAIN
GIPUZKOA

